


Eraztun jaritzea



100 urte hegaztien migrazioa aztertzen

1899an, H.C. Mortensen Danimarkatik desagertzen ziren arabazozo migratzaileak nora joaten ziren jakiteko irrikan zegoen. Buruari dozenaka buelta eman ondoren, helbidea idatzia zuten eraztunen bidez markatzea otu zitzaion. Hala, norbaitek arabazozo haiek aurkituz gero, argibideren bat eman ziezaiokeen. Burutazio horrek emaitza harrigarriak izan zituen laster eta, hala, hegaztien ikerketa zientifikoan den teknika garrantzitsuenetariko baten aita bihurtu zen Mortensen.

Testua eta argazkiak: Mikel Mari Elozegi

URRIAREN 2ko goizeko zortziak inguru dira, eta Ullibarriko urtegiaren inguruan Mortensenek 100 urte lehenago asmatu zuen gauza berbera egiten ari dira: hegaztiak eraztunetaz markatzen, alegia. Bat-batean, sareetan bi buztanluze erori dira, eta hartzerak hurbildu direnean, eraztuna badutela ohartu dira. «Ea gure urteroko buztanluzea den!», esan du Teresak urduri samar. Zenbakia ikusi bezain laster, datua baieztatu da: sarean harrapatutako txoria 668731 zenbakidun buztanluzea da, ikertzaileen aspaldiko laguna. Pisatu eta ohiko neurriak hartuta, harekin zetorren bestearekin batera askatu dute txoritxoak.


Nycticorax taldeko lagunak ikaragarri poztu dira txoritxo hori harrapatzeaz; izan ere, lau urte baino gehiago pasa dira lehenengoz harrapatu (1995eko abenduaren 6an, hain zuzen ere) eta eraztuna jarri ziotenetik. Egun hartan, sei hilabeteko gazte bat zen; familiarekin batera sareetan erori ondoren, guztiak markatu zituzten. 1996an txori hori bera bitan harrapatu zuten, 1997an lau aldiz, 1998an behin, 1999an bitan harrapatu zuten, eta azkeneko, esan bezala, urriaren 2an. Hala, bada, eraztunaren bidez jakin ahal izan da txori hori, jaiotzetik, zein garaitan egon den Ullibarriko inguruetan, zein pisua izan duen, adina eta abar. Dena den, markatutako hegaztia beste 10 aldiz berreskuratzea oso-oso gutxitan



Hegaztien migrazioa ezagutzeko eta bizimoduaren atal asko eta asko argitzeko sistema bikaina da eraztunetaz markatzea



100 urteotan 115 milioi bat hegazti markatu dira eraztunetaz European



Zangoluzer bat Ullibarriko urtegiaren inguruetan.

gertatzen da. Izan ere, eraztuna jarritako hegazti gehienei buruz ez da sekula inolako berririk iristen. Baina... zergatik egiten dute hori guztia?

Eraztunak jartzeko helburuak

Hasiera batean, hegaztien migrazioa ulertzea izan zen helburu nagusia: hegaztiak nondik nora mugitzen ziren jakitea, alegia. Denborarekin, ordea, hegaztiak eraztunetaz markatzea euren bizimoduaren atal asko eta asko argitzeko sistema bikaina dela

ikusi ahal izan da eta, gaur egun, zientzialarien ikerketan ezinbesteko tresna da.

Eraztunak zenbaki bat izaten du, eta jarritzen den lekuko kodea. Hala, inoiz inolako eraztun hori irakurtzea lortzen badu, eta datu hori markatzaileari bidali, bi datu izan behar ditugu: non eta noiz markatu zen hegaztia, eta non eta noiz agertu den. Ez dirudi bi datu horiek besterik gabe informazio askorik eman dezaketarik, baina 100 urteotan 115 milioi bat hegazti markatu dira eraztunetaz European eta bi milioi inguru berreskuratuta dira. Ikaragarriko datu pilak